

MUGIKORTASUN HITZARMENAK

EUROPATIK KANPO

- 1** Atzerriko unibertsitate batekin mugikortasun hitzarmen bat sinatzeko tramiteak egiten hasi nahi dutenek **Nazioarteko Harremanetarako Atalari jakinaraziko diote** (convenios.internacional@unavarra.es) daukaten interesa. Jakinarazi behar da zein unibertsitatearekin sinatu nahi den hitzarmena, eta hitzarmenaren zenbait ezaugarri berariazkoren berri eman; besteak beste hauena: jakintza arloa, ikasketa maila, ikasle kopurua, trukerako aldia eta haren irakaskuntza bitartekariak.
- 2** **Hitzarmen Proposamen bat beteko dute**, Nazioarteko Harremanetarako Atalaren bidez eskuratuko dutena, eta han, eskatzaileari buruzko informazioa emango dute, NUPen daukaten kargua edo eginkizuna eta zein unibertsitatearekin sinatu nahi den hitzarmena, garatu beharreko hitzarmen mota (esparru hitzarmena edo berariazkoa). Proposamen hori sinatuko dute eskatzaileak, dagokion titulazioko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileak, Nazioarteko Harremanetarako Atalaren buruak eta Nazioarteko Harremanetarako eta Garapenerako Lankidetzarako errektoreordeak.
- 3** Nazioarteko Harremanetarako Atalak tramitatuko du beste unibertsitatearekin sinatu beharreko hitzarmena, eta hari buruzko dokumentazioa Idazkaritza Teknikoari igorriko dio azter dezan.
- 4** Hitzarmenaren dokumentua **sinatuko** dute bi unibertsitateen barne eraentzako araudietan azaltzen diren instantziek, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kasuan **Nazioarteko Harremanetarako eta Garapenerako Lankidetzarako errektoreordeak**.